29 urte!
txintxarri
1993ko urriaren 1a 1. Zenbakia

2022-09-30 OSTIRALA / 1599. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM



Erritmo biziko festa

Dinbi Banda batukada taldeak herritarrekin batera ospatu du 10. urteurrena, eguraldi txarrari aurpegi ona jarrita / 9

TXINTXARRI

Laneko bizipenen doinuak

Julen Basterra Garmendia gitarra jotzaileak 'Jardun4ldi' diskoa argitaratu berri du; haren bigarren estudioko lana da / 6-7

Herriko haur eta nerabeentzako aisialdi jarduera ugari prestatu dituzte udalak eta Ttakun KEk / 2

Gogotsu eta ongietorria jasota ekin diote Udal Euskaltegiko ikasleek ikasturte berriari / 3

Helduentzako kultur ikastaroen eskaintza egin du udalak. Urriaren 3an irekiko dute izen emate epea / 4

Sasoetako jaiek ere ohiko formatu eta kolorea berreskuratu dute; gaur hasiko dira, hilak 30 / 8

Ostadar SKTk irabazi du Erregional 1. Mailako derbia (1-2), gol aukerak arerioak baino hobe baliatuta / 11

Ostadar Saskibaloiaren Kadete Errendimendu Zilar taldeak ligako lehen bi norgehiagokak irabazi ditu / 12

2MÓ 99€
GRADUATU
ERREFLEXUEN
AURKAKO LENTEEKIN

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiopticas.com

Euskaraz bizi, hazi, sentitu eta dibertitzeko

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak aisialdirako eskaintza zabala prestatu dute aurten ere, euskaraz, adin txikiko lasarteoriatarrentzat. Prometako saioak urrian zehar hasiko dira; izen ematea arrakastatsua izaten ari da, antolatzaileen esanetan

Txintxarri

Elkarlanean aritu dira aurten ere Ttakun Kultur Elkartea eta Lasarte-Oriako Udala, herriko haur eta gazteei aukera emateko haien aisialdia euskaraz bizi, sentitu eta gozatzeko. Eskaintza zabala ondu dute, lau programatan banatuta: Amaraun Kluba, Gazte Kluba, Kuadrillategi eta Faktoria. Horietako bakoitza adin tarte jakin bateko neska-mutilei zuzenduta dago. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, izen ematea irekita dago oraindik, eta "arrakastatsua" izaten ari da (Kuadrillategikoa itxita dago, eta Gazte Klubekoa gaur bukatuko da, hilak 30), makina bat pertsona inskribitu direlako honezkero. Arduradunak ikastetxez ikastetxe eta gelaz gela ibili dira ikasleei eskaintzaren berri ematen, eta "oso harrera ona" izan du.

Egitasmo bakoitzak bere ezaugarriak eta adin tartea izanagatik, helburu amankomunak dituzte: haur eta gazteen garapena aisialdiaren bitartez lantzea da horietako bat. Horretarako, burubelarri lan egin dute, prometako ekimenak "dibertigarri eta erakargarriak" izan daitezen erabiltzaileentzat.



Hamaika abentura biziko dituzte aisialdiko programetako gazteek. TTAKUN K.E.

Saioak, gozagarriak izateaz gain, hizkuntza ohituretan eragitekoak izango dira: xedeak izango dira haur eta gazteen harreman sarea euskalduntzea eta lagunarteko komunikaziorako tresna euskara izatea. Hori erdiesteko euskaraz aritzeko esparruak sortuko dituzte arduradunek, eta hizkuntza horren aldeko dinamika soziala nahiz identitate euskalduna sendotuko dituzte.

Amaraun eta Gazte klubak

Gaztetxoenak klub bateko edo besteko kide izango dira, haien adinaren arabera: Amaraunen parte hartuko dute 2 eta 8 urte artekoek; 9 eta 12 artekoak, berriz, Gazten.

Amaraun klubean ipuin kontaketa saio bereziak aurrera eramango dituzte HH3 eta 4 mailetako haurrentzat, imajinazioa dantzan jar dezaten. Koxkortuago daudenak (HH5 eta LH2 artekoak), aldiz, eskuekin ariko dira lanean, tailer hezigarri eta dinamikoetan: magia, sukaldaritza eta laborategi saioak egingo dituzte, beste batzuen artean. Horietako bakoitzak lauzpabost aste iraungo ditu.

Aipatutakoaz gain, ekimen puntualak prestatuko dituzte familientzako: mahai jolasen topaketa, ikastaroak, ikuskizunak, txangoak... Nondik norakoen berri jarduerak antolatu ahala izango dute erabiltzaileek, baina norbaitek informazio gehiago nahiko balu, *aisia@ttakun.eus* helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 92 telefono zenbakira hots egin dezake.

Gazte Klubeko lehen saioa urriaren 7an aurrera eramango dute gaztetxoek. Ordutik aurrera ostiraletan elkartuko dira begirale eta haurrak, eta hamaika jolas zein tailer egingo dituzte, 17:30etik 19:30era. Horrez gain, bereziagoak izango diren abenturak biziko dituzte, gehienbat asteburu eta oporraldietan izango direnak: irteerak, esperimentuak, Natur Ekintzak, eta abar.

Kuadrillategi eta Faktoria

Nerabeen aisialdia dinamizatzeaz Kuadrillategi eta Faktoria programak arduratuko dira. DBH1etik 4. maila artekoak ariko dira lehenengoan: saio arruntak ostiraletan aurrera eramango dituzte, 19:00etatik 21:00etara, eta bereziak, kurtsoan zehar. "Taldeetako kideekin hitz egin, eta haiek nahi dutenaren arabera programatuko ditugu", zehaztu dute Ttakunetik. Horrez gain, ohartarazi dute "beste herri batzuetako gazteekin" elkartuko direla noizean behin; azken urteetan ezin izan dute hori egin, pandemiagatik.

Faktoria laster jarriko dute martxan, izen emateak ikusi eta taldea osatzen dutenean. Proiektu bat hautatu eta hori landuko dute, bi ostiralean behin.

Bi egitasmo horiei buruzko xehetasun gehiago nahi dituenak bi bide ditu Ttakuneko kideekin harremanetan jartzeko: *ktglasarteoria@ttakun.eus* helbidera idatzi edo 943-37 14 48 telefono zenbakira deitzea.

Norbanakoek ere izena eman dezakete aurtengo Euskaraldian

Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute Euskal Herri osoan

Txintxarri

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da Euskaraldiaren hirugarren aldia, euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko arikera soziala. Gakoa jokaeran dagoenez eta ez gaitasunean, berebizikoa izango da herritarrek ahobizi edo belarriprest rola hartzea. Izena emateko epea ireki dute antolatzaileek, eta jakinarazi, aurtengo berrikuntzetako bat dela lehen aldiz ariko direnak soilik inskribitu beharko direla, eta aurrez jardundakoek berretsi egin beharko dutela parte hartzea, norbanako nahiz entitate izan.

Lasarte-Orian, nola ez, era berezi batean aurrera eramango dugu aurtengo Euskaraldia, izan ere, Euskararen 10. Maratoialdiaren urratsetako bat izango da, azkena, urri erdialdetik Sentitu eta Prestatutakoaren ostean egin beharrekoa: Eta ekin! fasea, hain justu. Izenak ongi adierazten duen moduan, jarduteko garaia izango da, ekitekoa. Euskaraldiaren beraren leloak ere hori bera aldarrikatu du: *Hitzez ekiteko garaia* dela.



Norbanakoek ahobizi edo belarriprest izan ahalko dute aurten ere. TXINTXARRI

Duela bi urte bezala, bi parte hartzaile mota izango dira: gutxienez euskara ulertzen duten 16 urtetik gorako norbanakoak (ahobizi edo belarriprest modura) eta mota guztietako entitateak (ariguneak osatuko dituzte, euskaraz lasai aritzeko eremuak). Batzuek nahiz besteek izena eman dezakete; entitateen kasuan, azken eguna urriaren 31 izango da, astelehena.

Euskaraldiaren hirugarren aldiaren bi xede nagusiak hauek izango dira: parte hartzen duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak egitea; eta parte hartzea hedatzea, alegia, ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea. Batez ere, ariguneak dira gako horretan, entitateetan ariketa modu kolektiboan egiteaz gain, eraginkorrak direlako herritar multzo berriengana iristeko.

Gune ibiltaria

Pandemiaren ostean, antolatzaileek iragarri dute kaleak berreskuratuko dituztela. Norabide horretan, jakinarazi dute gune ibiltari bat ibiliko dela herriz herri, Euskaraldiari buruzko informazioa toki guztietara helarazteko. Lasarte-Oriara azaroaren 9an etorriko da, asteazkenarekin.



Ikasturtean zehar erabiliko dute karpetak eskuan hartuta atera dute Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleek talde argazkia. TXINTXARRI

Hasi dira euskara eskolak hartzen Udal Euskategian

Ehun ikasletik gora ariko dira 2022-2023 ikasturtean Lasarte-Oriako Udal Euskaltegian. Hasi dituzte lehen eskolak, eta gogotsu agertu dira denak; harrera egin diete euskaltegiko eta udaleko ordezkariek eta talde argazkia atera dute denek elkarrekin

Txintxarri

Euskara ikasteko gogoz agertu dira Udal Euskaltegiko ikasleak. Astelehen goizean, hilak 26an, ekin diote ikasturteari, *Euskara guztiontzat* lelopean. Goizean, arratsaldean eta iluntzean izango dira eskolak aurten; aurrez aurre arituko dira batzuk, eta ikasketak sarean egingo dituzte beste hainbatek. Dagoeneko martxan dira guztiak, baina oraindik, euskara ikasi nahi duenik bada, izena emateko aukera baduela nabarmendu dute. Azpimarra berezia egin diote horri, izan ere, jakinarazi dute zenbait leku libre daudela oraindik, hortaz, euskara ikasi nahi duten herritarrak inskripzioak egitera deitu dituzte.

Irakasleen aurkezpena ere egin diete ikasleei; Pili Galan, Josune Izagirre, Unai Telleria, Itziar Koch, Jesus Mari Asurabarrena eta Lorendiñe Usarralde arduratuko dira eskolak emateaz. Azken hori zuzendaria ere bada. Euskara batzordeburu Jon Antxordoki bertan izan da. Urtero bezala, ongietorria egin die ikasteei, eta eskerrak eman dizkie euskara ikasteko hautua egin eta horretarako Udal Euskaltegia aukeratu izanagatik. Aipatu ditu baita ere udalak euskara ikasteko eskaintzen dituen bekak.

Agurtu aurretik, talde argazkia atera dute denek elkarrekin eta ikasgeletara itzuli dira hainbat ikasle.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Asteroidea

Soraluzeko emakume baten erailketa, Italiako hauteskundeak, Errusiako gasa... Burua lehengo lepotik dugula hasi dugu ikasturtea. Etsipena, ziurgabetasuna, haserrea... sortzen dizkiguten albisteak dira, baina euri jasaren artetik argi izpi bat agertu da zeruan. Literalki. Izan ere, hemendik milioika kilometrotara asteroide bat bere orbitatik ateratzea lortu dute. Titularra irakurritakoan, automatikoki, Bruce Willis etorri zait burura, espazioan, asteroide batean bonbak ipintzen, Armageddon pelikulan, hain zuzen. Eta hurrengo segundo frakzioan, berriz, *Don´t wanna miss a thing* filmeko soinu bandako abestia, Aerosmithena.

Errealitateak fikzioa gainditu du beste behin. Gogora ekartzeko, film horretan asteroide bat Lurrera bidean zetorren. Gure planetaren kontra talka eginez gero, hondamendia izango zatekeen, dinosauroak Lurretik desagertu zirenekoaren mailakoa. Horrelako bukaera saihesteko, asteroideraino joan, lurrean zuloak egin eta bonbak sartzea erabakitzen dute, asteroidea zatitu, eta honen ibilbidea aldatzeko. Orain, errealitatean, Armageddonen espero zen amaiera bera ez gertatzeko, aipatutako proba hori egin dute espazioan, eta arrakastatsua izan da. Eskerrik asko, NASA, lasaiago gaude orain.

Hala ere, nago, munduaren bukaerari buruz hitz egiterakoan, kanpora baino barrura ez ote dugun begiratu beharko. Gizakiari berari eta berak sortzen dituen kalteei buruz ari naiz. Hortxe dugu, esaterako, klima larrialdia. Urrutira joan gabe, gurean, azken urteetako udarik beroenetako eta lehorrenetako bat izan dugu. Gizateriaren izurritea, mundua asteroideak bezainbeste kaltetu dezakeena.

Igogailuak eta arrapalak instalatzeko laguntzak eska daitezke

Igogailuak eta arrapalak instalatzeko diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Lasarte-Oriako Udalak. Etxebizitza eraikinetan igogailuak jartzeko edo irisgarritasuna hobetzeko obrak egingo dituzten jabekomunitateentzat zuzenduta dauden laguntzak dira, baina finantzatuko diren obra horiek, 2021eko azaroaren 1etik 2022ko urriaren 31ra bitartean egindakoak izan behar dute. Udalak, guztira, 80.000 euro bideratuko ditu laguntza horietara.

Igogailuen instalakuntzagatik gehienez 10.818 euro jaso ahal izango dira, eta, arrapalengatik, berriz, 1.803 euro.

Interesa dutenek azaroaren 20a baino lehen egin behar dute eskaera.





Kultur ikastaroetan parte hartzeko aukera zabala

Izen ematea urriaren 3an zabalduko da eta 7ra arte izango dute lasarteoriatarrek inskripzioak egiteko aukera. Dantza ikastaroetan ere aritu ahal izango dira ikasturte berri honetan. Egunotan ari dira eskaintza guztia batzen duen eskuorriak banatzen, etxez etxe



Udal ordezkariak, prentsaurrean, kultura ikastaroen berri ematen. TXINTXARRI

Txintxarri

Aisialdirako aukera ludiko eta hezitzailea eskaintzeko helburuz, kultur ikastaroen eskaintza zabala egin du udalak. Helduei (16 urtetik gorakoak) zuzenduta dago, eta parte hartu nahi dutenek, urriaren 3tik 7ra arteko tartea izango dute izena emateko. Horretarako, bi aukera dituzte. Aurrez aurre egin nahi duenak, Manuel Lekuona Kultur Etxera joan beharko du, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, edo 17:00etatik 20:00etara. Inskripzioa sarean egin nahi duenak, berriz, honako helbidean erabil dezake: *www.lasarte-oria.eus*.

Aurten ere izango dira 5 + 1 ikastaro irekiak. Udalak sustatutako ekimena da, eta kultura zein gizarte arlokoak izan daitezken tailer berrien sorrera bultzatzea du xede. Pertsona batek egin nahi duen ikastaro bat proposa dezake, eta tailer hori egin nahiko luketen bost pertsona gehiago bildu beharko ditu. Proposamenak udalaren web atariaren bidez bidal daitezke, urte osoan zehar.

Dantza ikastaroak ere izango dira. 2016an jaiotakoentzat astelehen eta asteazkenetan izango dira entsegu saioak, 17:30etik 18:15era. 2015ean jaiotakoek ere egun horietan entseatuko dute, baina 18:15etik 19:00etara. 2014an jaiotakoek, berriz, astearte eta ostegunetan izango dituzte saioak, 17:30etik 18:30era, eta 2013an jaiotakoek, astelehenetan, 17:00etatik 18:30era. Dantza ikastaroan parte hartu nahi duten lasarteoriatarrek 35 euro ordaindu beharko dituzte hilero.

Kultura ikastaroen eskaintza

Ikastaroa	Eguna	Ordutegia	Prezioa erroldatuak	Prezioa ez erroldatua	Datak
Argazkilaritza hastapena	osteguna	19:00-20:30	47,53 euro	79,22 euro	10/20-01/26
Argazkigintza aurreratua	osteguna	19:00-20:30	47,53 euro	79,22 euro	02/02-06/15
Estresa murrizteko teknikak	asteartea	15:00-16:30	95,07 euro	158,45 euro	10/18-06/13
Sabel dantza	osteguna	19:45-21:15	71,30 euro	118,82 euro	10/20-06/15
Barre metodoa	ostirala	19:15-20:45	71,30 euro	118.82 euro	10/21-06/16
Meditazioa	asteazkena	19:15-20:45	95,07 euro	158,45 euro	10/19-06/14
Sendabelarrak	osteguna	17:00-18:30	95,07 euro	158,45 euro	10/20-06/15
Dantza latinoak	asteartea	19:00-20:30	71,30 euro	118,82 euro	10/18-06/13
Narratiba laburreko idazketa	asteartea	19:00-20:30	71,30 euro	118,82 euro	10/18-06/13
Ilara dantza	osteguna	18:15-19:45	71,30 euro	118,82 euro	10/20-06/15
Areto dantzak	ostirala	11:00-12:30	71,30 euro	118,82 euro	10/21-06/16
Joskintza eta patroigintza	asteazkena	10:00-12:00	95,07 euro	158,45 euro	10/17-06/12
Irakurketa	astelehena	10:00-12:00	71,30 euro	118,45 euro	

Donostiara joateko deia egin dute Sareren eskualdeko taldeek

Sare Herritarrak mobilizazioa eta jaialdia egingo ditu urriaren 8an, Izan Bidea dinamikari amaiera emateko

Txintxarri

Etxera bidea gertu lelopean, Sare Herritarrak "aurtengo mobilizazio eta jaialdi handienak" aurrera eramango ditu urriaren 8an, larunbatez, Donostian. "Adin guztientzat aproposa" izango dela zehazteaz gain, ekintzak bi helburu nagusi dituela azpimarratu du eragileak: "Batetik, leloak dioen moduan, herritarrok prest gaudela euskal presoen etxeratze prozesua gauzatzeko; eta bestetik, lortutakoari garrantzia kendu gabe, oraindik ere salbuespen politikarekin guztiz amaitzeko bidea egiteke dugula gogorarazi nahi dugu eta bide hori egiten jarraituko dugula erakutsi". Era horretara egingo dituzte Izan Bidea dinamikan erronka gisa jarritako 3.137.326 kilometroetatik azkenekoak.

Mobilizazioa 11:00etan hasiko da, Bulebarrean. Lau zutabe egin, eta Pio XIIra joango dira aurrena, eta Illunbera gero. Bertan egingo dute ekitaldi nagusia, 13:00etan, eta festa lehertuko da ondoren; iluntzera artekoa izango da. Lasarte-Oriako Sarek xehetasun gehiago emango ditu Azken Ostiralean, gaur, hilak 30, 20:00etan. Elizatze plazan jarri du hitzordua.



Eskualdeko ordezkariek Urnietan egin dute agerraldia berriki. LASARTE-ORIAKO SARE

LASARTE-ORIA
GREMIOEN GIDA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

Elektrizitatea

ELECTRICIDAD EZ ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

Iturgintza

ILLARRETA
ITURGINTZA IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 606 68 66 15 eta 943-36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

Kristaldegi eta leihoak

AÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- *Komertzial instalazioak*
- *Beira bikoitza*
- *Segurtasun beirak*
- *Dutxa-itxiturak eta irristailuak*
- *Ispiluak*
- *Barandak*
- *Kristal mota guztiak...*

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

30. urteurrena

ISU

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak, barandak, toldoak,armairuak, eltxo sareak eta gehiago...

943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL

Barne-Diseinua

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com

Igeltseritza

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

Gida honetan azaldu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | *publizitatea@ttakun.eus*



Julen Basterra Garmendiak norberak bere ogibide eta lanaldiari buruzko hausnarketa pertsonal bat egitera gonbidatu ditu entzuleak. JULEN BASTERRA GARMENDIA

"Erosoago sentitzen naiz letrarik gabeko abestiak sortzen"

JULEN BASTERRA GARMENDIA GITARRA JOTZAILEA

'Sorm3n' diskoa iaz, eta 'Jardun4ldi' aurten. Izenburuetako zenbakiek hala iradoki arren, bigarrena ez da lehenaren segida: kontzeptu orokor bat du, eta "esperimentalagoa" da

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Mahats artean" ari da lanean Julen Basterra Garmendia (Lasarte-Oria, 1993) gaur egun, nekazal munduan. Lanaldiz lanaldi sentitzen dituen bizipen pertsonalei doinua jarri die gitarra klasikoarekin, eta disko batera eraman ditu, *Jardun4aldi* izenekora. Sortzailearen bigarren estudioko lana da. Harekin elkartu da TXINTXARRI, proposamen horri buruz gehiago jakiteko.

'Jardun4aldi' izena jarri diozu zure bigarren diskoari. Zergatik? Zein bide egiten duzu lanean zehar, eta zein bide egitea proposatzen diozu entzuleari?

Nire lanari eskainitako disko bat da, lanaldiari, jardunaldiari. Nekazal munduan ari naiz ni, eta bertan izaten ditudan bizipen pertsonalen soinu banda bat egin dut. Nire sentimenduei doinua jarri diet gitarra klasikoarekin, baina era berean pentsatu dut gainerako pertsonengan, egunero lan egiten dutenengan, beste esparru batzuetan. Uste dut *Jardun4aldi* entzunda haiek ere uler dezaketela zeri buruz ari naizen. Lanari buruz gogoeta pertsonal bat egitera gonbidatzen ditut entzuleak.

Hausnarketa hori egiteko, beharrezkoa da diskoa ordenean entzutea? Abesti zerrenda begiratuta, sekuentzia bat garbi ikusten da: 'Jardun4aldi', 'Goizeko Martxa', 'Egu Erdi', 'Arrats Kalte', 'Gau On', 'Egun Senti'...

Bai, kanten hurrenkera errespetatzea gomendatzen dut. Hasieran binilo formatuan kaleratzea zen nire asmoa, baina garestiegia zenez, CDa izan da azkenean. Diskoak bi zati ditu: lehenengoa, edo A aldea, lanaldiari berari buruzkoa da; eta bigarrena, edo B aldea, esperimentalagoa, filosofikoagoa. 'Lan egiten dugu, bai, baina zertarako?' galderari buruz hausnartu dut.

Zergatik aldatu duzu diskoaren izenburuaren bigarren 'a' hizkia '4' batengatik? Nolabaiteko joko, keinu, iradokizun... bat da? Zure lehen diskoan, 'Sorm3n'-en, gauza bera egin zenuen.

Detaile garrantzitsua da hori. Esanahi gehiago sartzeko aukerak erabiltzen ditut nire lanetan, eta kasu honetan, naturaren lau elementuei egin diet erreferentzia: haizea, lurra, sua eta ura. Guztiak entzuten dira diskoko abestietan. Esate baterako, azken kantuan, *T(X)A(L)O*-n, Irati ibaiaren jarioa sartu dut. *Sorm3n*-en hiru oinarri erabili nituen: gorputza, arima eta espiritua.

'Sorm3n'-en jarraipena da 'Jardun4ldi'?

[Pentsakor geratu da une batez]. Lehen diskoak ez zeukan kontzeptu orokor bat, abesti solteak konposatu nituen; ideia bati buruzkoa zen bakoitza. Zentzu horretan, desberdina da bigarren lana. Horrez gain, esperimentalagoa da. Xabi Agirreren laguntzarekin sortu dut, hark Mungian duen estudioan, Abadetxen.

Nolakoa izan da prozesu hori? Elkar ezagutzen zenuten lehendik?

Oso aberasgarria. *Sorm3n* kaleratu nuenean, Euskadi Irratian elkarrizketatu ninduten. Horren ostean, Xabi harremanetan jarri zen nirekin, helbide elektroniko bidez: erantzun zintzoa izan zen, benetako interesa erakutsi zuen nire jardunarengan, eta tren hori hartzea erabaki nuen, berarekin lan egitearena.

Buruan zenuenetik kaleratu duzunera, gauza asko aldatu dituzu?

Ez. Kontatu nahi nuen istorioa argi nuen, eta ordena ere bai. Xabirekin lan egiteak lagundu dit, batez ere, abestiak biribiltzen eta kolorea ematen; ñabardurak sartzen. Elkarlan horrek aberastu egin du diskoa, dudarik gabe: gitarra klasikoa izan du oinarri, baina sartu ditugu bestelako soinu, efektu eta elementuak.

Gitarra eta bestelako elementu ugari entzun daitezke 'Jardun4aldi'-n, baina hitzik apenas ez. Zergatik?

Nire bizitzako etapa honetan erosoago sentitzen naiz letrarik gabeko abestiak sortzen. Hori bai, sekulako indarra aitortzen diot ahotsari: gizakiaren instrumentu onena da, berezkoa.

Aipatu duzu bilatzen duzula entzuleek gogoeta pertsonalak egitea. Norberaren barruko ahotsa entzuten laguntzen du kanpokoa isiltzeak? Azken hori indartsua izanagatik, hausnartzerakoan distrakzio, oztopo, izan daiteke?

Kantuak instrumentalak izatearen hautua ere hortik doa, bai. Uste dut momentu erreflexibo batean dagoen pertsona bat asko mugatzen dutela letrek, norabide oso zehatz bat markatzen dutelako. Musikaren sinbolismoa askoz zabalagoa da.

Nire iritziz, oso hitz egokiak behar dira entzulearentzat benetan esanguratsuak izan daitezen, haiengan gogoeta egitea pizterakoan behintzat. Ariketa hori modu iradokitzaile, baina era berean poetikoan egingo nuke nik, eta hori ez da erraza.

Horrelako ariketa bat egin duzu 'Hodeiak/Hitzak/Hodeiak' abestian. Zure ahotsa erabiliz, hainbat gogoeta egin dituzu, eta kontzeptu iradokitzaile batzuk erabili, esaterako, kultura iheskorrarena. Zer da hori?

Sormena ogibide dutenek batzuetan pairatu behar duten egoera edo joera dela iruditzen

zait. Hain produktiboak izan behar dugu mundu honetan, non kultura bera ere zurrunbilo horretan sartzen den eta iheskor bihurtzen zaigun: oso zaila da lasaitasunez eta erritmo geldo batean esanguratsuak izango diren lanak sortzea. Nork du benetan patxadaz hartu eta jendea hunkitzeko erritmo hori? Nork ekarriko digu horrelako txinparta bat? Hein batean, nire diskoak hori egitea espero dut, sentsazio hori sorraraztea entzuleengan. Haiekin partekatu nahi dudan zerbait da *Jardun4ldi*.

Noiz bururatu zitzaizun proiektu hori egitearen ideia?

Igeldon bururatu zitzaidan, kiwi artean nengoela, pandemia garaian. Ez konfinamendu betean, orduan ez nuelako izan gitarra jotzeko gogorik; sei hilabete geroago hartu nuen instrumentua berriro, eta nire jardunaldiari buruz pentsatzen hasi nintzen.

Zuzeneko emanaldiak egiteko asmoa duzu? Lotu duzu baten bat?

Orioko Zingira kanpineko Los Fogones de Luzia jatetxean aurkeztu nuen lana, hilaren 17an. Beste kontzerturik ez dut, oraingoz. Hori bai, gustatuko litzaidake herrian jotzea, Manuel Lekuona Kultur Etxean, ea posible den. Horretaz aparte, ez dut gehiegitan aritu nahi zuzenean, ez dut erotu nahi horrekin, asko nekatzen duelako.

Pentsatu dudana da kalean jotzea, baina inori esan gabe noiz eta non ariko naizen; nire barrua husteko ariketa gisa planteatu dut hori. Gure herriko kultur etxean kontzertu bat ematearekin itxiko nuke prozesua. Hori bai, aukera izanez gero, nire nekazal jardunarekin uztartu beharko nuke; uneotan, txakolindegi batean ari naiz lanean, mahats artean. Lan gogorra da, baina gustura nabil, lankide ugarirekin; haiekin harremana izatea gauza ederra da. Pandemiak asko isolatu gintuen eta apurka-apurka ari gara berreskuratzen, uste dut funtsezkoa dela hori.

Noiz hasi zinen gitarra jotzen?

Txikia nintzela, 6 urterekin. Kasualitatez hasi nintzen: gurasoek apuntatu ninduten Lasarte-Oriako musika eskolara, eta atentzio gehien eman zidan instrumentua hautatu nuen, gitarra klasikoa. Haurrek ez dute horrenbeste pentsatzen gauzak zergatik aukeratzen dituzten.

Gitarra nirekin batera hazi da, hori egia da. Nerabezaroan oso gogor sartu zen gitarra elektrikoa; ondoren, joan egin zen hori eta leuntasunera itzuli nintzen. Uste dut musika osasungarriagoa egiten dudala orain, bai niretzat eta bai entzuleentzat.

Horra hor beste kontzeptu iradokitzaile bat: musika osasungarria.

Musika medizina da. Barazkiekin gorputzari jaten ematen diogu, eta musikarekin, arimari. Biak elikatu behar ditugu. Azken finean, barruan daramazuna askatzeko irtenbide bat da, eta jabetu naiz mesedegarriagoak direla soinu leunak.

Non entzun eta eskura daiteke argitaratu berri duzun arima elikatzeko 'jaki' hori?

YouTube eta Spotify atarietan, Bandcamp-en... Azken horretan, diskoa entzuteaz gain, fisikoki zein digitalki eros daiteke. Nire helburua ez da *Jardun4ldi*-rekin aberastea, baina ekoizpenak kostu bat izan du, eta eskertuko nuke entzuleek nire lana ekonomikoki babestea. Baliagarria izango litzaidake laguntza hori.

Uste dut, oro har, gutxi babesten ditugula sortzaileak, eta diskoa erostea aukera polita da hori egiteko. *Jardun4ldi* sortu dut entzuleek esperientzia hori bizi eta bertatik zerbait ateratzeko; iruditzen zait diruz emango dutena baino gehiago jasoko dutela.

"NATURAREN LAU ELEMENTUEI EGIN DIET ERREFERENTZIA DISKOAN: HAIZEA, SUA, LURRA ETA URA"

"MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN KONTZERTU BAT EMATEAREKIN ITXIKO NUKE PROZESUA"

"DISKOA ENTZUNDA, USTE DUT DIRUZ EMANDAKOA BAINO GEHIAGO JASOKO DUELA JENDEAK"



Diskoaren azala. J. BASTERRA

Diskoaren azala ere, sinboloz beteta

"Abaltzisketako Sasiain baserrian lankide izan nuen Garbiñe Arregik sortu du diskoaren azala", esplikatu du Basterrak. "Nire jardunaldi askoren parte izan da, zutabeetako bat". Hark proposatu zizkion sortzaileari diskoaren azalean ikusten diren elementuak sartzea: "Kimaketako adarrak, gitarra bat nekazari galtza batzuen oihalarekin egina, itsasoa [Igeldotik bista hori zuelako] eta eguzkiloreak. Azken hori Sasiaini egindako keinu berezia izan da".

Hamar abestik osatzen dute Basterrak diskoan proposatu duen jardunaldia. Lasarte-Orian konposatu ditu guztiak, eta lana Mungian (Bizkaia) biribildu du estreinako 'Sorm3n' diskoaren "soinu klasikoetatik" aldenduta. Xabi Agirreren Abadetxe Sorlekuan. Masterizazioa Javi Roldanek egin du, Zaragozako Vacuum Mastering estudioan.

Abesti zerrenda

1. 'Jardun4ldi'. 2'24''.
2. 'Goizeko Martxa'. 4'01''.
3. 'Egu Erdi'. 2'06''.
4. 'Arrats Kalte'. 2'58''.
5. 'Gau On'. 1'57''.
6. 'Egun Senti'. 2'37''.
7. 'Trabak'. 2'39''.
8. 'Itxi'. 3'48''.
9. 'Hodeiak/Hitzak/Hodeiak'. 3'44''.
10. T(X)A(L)O. 4'13''.



Aurtengo bazkaria Michelin kirol guneko pilotalekuan egingo dute. TXINTXARRI

Ohiko formatua berreskuratu du Adinekoen Omenaldi Asteak

Urriaren 1etik 9ra arte aurrera eramango dituzte jarduerak: kontzertua, bazkari jendetsua eta dantzaldia, besteak beste

Txintxarri

Merezitako aitortza jasoko dute Lasarte-Oriako adineko pertsona ugarik urriaren 1etik 9ra: egun horietan egingo dute Adinekoen Omenaldi Astea, pandemia aurreko formatua berreskuratuta. Egitaraua Biyak Bat elkartearen eta Lasarte-Oriako Udalaren artean prestatu dute. Ohi bezala, Biyak Baten bandera igotzearekin hasiko da festa. Urriaren 1ean aurrera eramango dute jarduera hori, 16:00etatik aurrera, elkartearen egoitzan (Kale Nagusia, 40). Hiru egun geroago, Jose Alberto Aznar tenoreak emanaldia egingo du Manuel Lekuona Kultur Etxean, 19:00etan. Sarrera doakoa da.

Ekimen gehienak, asteburuan

Urriko bigarren asteburuan egingo dituzte egitarauko jarduera gehienak. Urriaren 7an, ostiralez, Ondo ibili egitasmoaren barruko ibilaldia programatu dute, 11:00etarako. Arratsaldean, 19:00etan hasita, Duo Imperial taldeak kontzertua emango du kultur etxean. Hurrengo egunean, urrezko ezteiak egin dituzten bazkideek omenaldi xumea jasoko dute elkartearen egoitzan.

Igandea izango da festa egun handiena. 11:30ean meza hasiko da Arantzazuko Ama parrokian; hiru ordu laurden iraungo ditu, gutxi gorabehera. Ondoren, elizatik kultur etxeraino kalejiran joango dira herritarrak, Biyak Bat koruaren kontzertua ikustera. 13:15ean hasiko da. Amaitzean, metro batzuk gehiago ibili eta Michelingo kirol gunera bertaratuko dira, han bazkaltzeko. 14:00etan eseriko dira mahaietan. Bapo jan ostean, nahi duenak aukera izango du gorputza astintzeko, 18:30ean hasiko den dantzaldian. Ibai Berriak talde lasarteoriatarrak girotuko du bazkalostea.

Odolaren Mintzoa ariko da Jalgi Kafe Antzokian

Odolaren Mintzoa talde usurbildarra izango da Jalgi Kafe Antzokiko oholtza gainera igotzen hurrengoa, bihar, urriak 1, 20:00etan. Antolatzaileek jakinarazi dute ikus-entzuleek ez dutela sarrerarik ordaindu beharko. Laukoteak hiru disko atera ditu orain arte. Azkena, aurten: *Hauskor*. Abesti berriak eta zaharragoak joko dituzte bihar.



Herrian jo izan dute lehen ere. TXINTXARRI

Eguzkia festara etortzea besterik ez zaie falta

Sasoetako jaiek ere ohiko kolorea eta formatua berreskuratuko dute aurten. Udalaren laguntzarekin, "berrikuntza eta sorpresa ugari" dituen hiru eguneko egitaraua prestatu du Sasoeta Sasoian auzo elkarteak, "lasarteoriatar guztientzat"

Txintxarri

Aurreikuspenen arabera, eguraldi txarrak tregoa emango dio Lasarte-Oriari bihartik aurrera, urriak 1, eta eguzki izpiek argituko dute berriro udalerria. Esperantza hori dute Sasoeta Sasoian auzo elkarteko kideek, igandera arte ospatuko baitituzte jaiak, hiru urteren ondoren. Aurkezpen prentsaurrekoan onartu dutenez, oraindik ez dira gehiegi fio, eta badaezpada ere eguraldi ona eskatu dute, Agustin Valdivia alkatearekin batera. Azken horrek zehaztu du udalak 3.145 euro emango dizkiola eragileari, egitarauan sartu dituzten jardueren gastuak finantzatzen laguntzeko.



Sasoeta Sasoian elkarteko ordezkariak eta alkatea, aurkezpenean. TXINTXARRI

Festa ostiral arratsaldean lehertuko da, 18:00etan, Andatza plazan, pregoi eta txupinarekin. Auzo elkarteak Bagri liburu dendako jabe izandako Juan Antonio Barrenechea eta Conchi Grijalba omenduko ditu. "50 urte baino gehiagoz lan egin dute Sasoeta bizileku hobea izatearen alde". Ordu berean Los Chavales de Martija taldeak antolatutako kirol jarduerak hasiko dira, Uzturre plazan. "Eguraldi txarra egiten badu, Sasoeta LH ikastetxeko patioan jardungo dira", zehaztu dute. Lehen esan bezala, aurtengo programan ekimen berriak sartu dituzte. Horietako bat izango da ostiral iluntzeko musika saioa, bi talderen eskutik: Kontraband eta Overloud. Andatzan joko dute, 20:30etik aurrera.

Danborrada, arretagune

Larunbateko jarduera nagusia 18:30ean hasiko den helduen danborrada izango da. Gautxori txarangako lagunekin batera aterako dira Andatza plazatik eta auzoa zeharkatuko dute. Parte hartzeko beharrezkoa da Sasoeta Sasoian elkartean izena ematea. "Datu pertsonal batzuk besterik ez ditugu eskatzen, doakoa da", adierazi dute kideek. Horren aurretik, paella jan ederra egingo dute Andatza plazan. Txartelak Bagri liburu dendan eros daitezke, 10 eurotan. Beste berrikuntzetako bat izango da Taula Xake Klubak 16:00etatik aurrera egingo duen txapelketa. Gaueko plana, hau: zezensuzkoa eta DJ Nemux, 03:00ak arte. Hiru jarduera horiek ere Andatzan izango dira.

Igandea izango da azken festa eguna. Goizean zehar haurrentzako ekimen ugari aurrera eramango dituzte, eta ondoren, patata tortilla txapelketa. Jakiak 11:00etatik 12:30era entregatu beharko dira Andatza plazan (mahai bat jarriko dute antolatzaileek), epaimahaiko kideek dastatu eta irabazlea erabaki dezaten. Extremadura Etxeko ordezkari Angel Barrera, Sasoeta Sasoianeko kideetako bat den Borja eta Ventanas Alcarreko dendari Ana Laureano izango dira epaile. Arratsaldeko lauetan haurren danborrada hasiko da.

Elkarteko kideek jakinarazi dute salgai egongo direla festetako zapiak, 3 eurotan, Andatza plazan jarriko duten txosnan.

SASOETAKO FESTAK - EGITARAUA

► Irailak 30, ostirala

18:00: pregoia eta txupina, Andatza plazan. Aurtengo omenduak Bagri liburu dendako jabe izandako Juan Antonio Barrenechea eta Conchi Grijalba izango dira. 50 urte baino gehiagoz egin dute lan bertan, eta alaba Edurnek kudeatzen du negozioa orain.
18:00: haurrentzako kirol jarduerak, Los Chavales de Martijaren eskutik, Uzturre plazan. Eguraldi txarra egiten badu, Sasoeta LH ikastetxeko gimnasioan.
19:00: Ostirintxo pintxo potea, taberna hauetan: Txoko, Mostatxo, Jaizkibel, Peña, Txindoki, Santxo eta 2KN.
19:00: txikidiskoa, Andatzan.
20:00: txokolate jana, Aitonak okindegiak prestatuta, Andatzan.
20:30: kontzertuak, zuzenean, Andatzan: Kontraband eta Overloud taldeek joko dute.
23:30: zezensuzkoa, LOZET elkartearen eskutik, Andatzan.
00:00: DJ Nemux, 03:00ak arte, Andatzan.

► Urriak 1, larunbata

11:30: haurrentzako tailerrak eta aurpegia margotzeko saioak Dulce Tentacion dendaren kanpoaldean, Jaizkibel plazan.
11:30: futbolin txapelketa, Jaizkibelen. Gurasoak, seme-alaben aurka.
13:00: LOZET elkartearen buruhandiak auzoan barrena ibiliko dira.
14:30: bazkari herrikoia, Jaizkibelen. Txartelak Bagri liburu dendan eros daitezke, 10 eurotan.
16:00: mus txapelketa, Mostatxo tabernan.
16:00: igela txapelketa, Txindoki tabernan.
16:00: xake txapelketa, Andatza plazan, Taula Xake Klubaren eskutik.
16:30: zunba saioa Andatzan, Saito gimnasioaren eskutik.
18:00: pintxo potea Andatzan, Sasoeta Sasoianek jarriko duen txosnan.
18:30: helduen danborrada, Gautxori txarangak lagunduta. Andatzatik aterako dira. Parte hartzeko, beharrezkoa da Sasoeta Sasoianeko kide izatea (doakoa da inskribitzea, datu pertsonalak eman behar dira, besterik ez).
23:30: zezensuzkoa, LOZET elkartearen eskutik, Andatzan.
00:00: DJ Nemux Remember, 03:00ak arte, Andatzan.

► Urriak 2, igandea

11:00: puzgarriak, Andatza plazan.
11:00: Laser Tag izeneko jokoa, Tximistarreta parkean. 16 haurrek parte har dezakete batera, gehienez.
12:30: patata tortilla txapelketa, Andatzan. Jakiak 11:00etatik 12:30era eraman behar dira, Sasoeta Sasoianek plaza horretan jarriko duen mahai batera.
13:00: LOZET elkartearen buruhandiak auzoan barrena ibiliko dira.
16:00: haurren danborrada, Andatzatik abiatuta.
17:00: errifen zozketak, Andatzan.
17:30: amaierako traka, Andatzan.

OHARRA: auzo elkarteko zapiak salgai izango dituzte jaietan zehar, Sasoeta Sasoianek Andatza plazan jarriko duen txosnan, 3 eurotan.

Dinbi Banda

Erritmo biziko urtebetetze festa, hamarkada ospatzeko

la topikoa da esaldia, baina hamar urte ez dira egunero betetzen; eta halako mugarrira iritsita, ospatzea garrantzitsua da. Kandelei putz egiteko unea iristeko aste batzuk falta badira ere, hilaren 24a aukeratu zuten Dinbi Bandako kideek ekitaldiak aurrera eramateko. Egun batzuk lehenago Jalgi Kafe Antzokiko eta Avenida tabernako hormetan zintzilik jarri zuten batukadaren atzera begirako argazki erakusketa. Irudien bidez, urteotako hamaika une eta partaide gogoratzeko aukera polita izan zuten lasarteoriatarrek.

Euria medio, Okendo plazatik Oriarte-Landaberriko patiora lekualdatu zituzten ekimenak, baina eutsi egin zioten prestatutakoari. Itzi Kan-ek Djole izeneko afrikar estiloko dantza irakatsi zien zenbait ariketa eta koreografia eginez. Partaide gehienak batukadako kideak izan zirenez, gorputza esnatuta eta beroketa eginda, ondoren egin zuten batupoteorako prest bukatu zuten. Ibilbidea moldatu egin behar izan zuten eta hiru tabernatara mugatu. Globo berde eta horiz apainduta zegoen El Punto-n egin zuten lehen geldialdia. Hango arduradunek tarta bat oparitu zieten, eta hura jan ondoren, argazki bat egin zuten elkarrekin. Jarraian, Avenida eta Jalgi aurrean jo zuten, eta amaitzean, Extremadura Etxera joan ziren elkarteko kideek prestatutako bazkari goxoa dastatzeko. Indarberrituta, arratsaldean, Oriarte-Landaberriko patiora bueltatu ziren Xilikonai eta The Noise Makers taldeen kontzertuez gozatzera.





El Punto tabernan ekin zioten batupoteoari eta bertako arduradunek tarta bat oparitu zieten urteurrena ospatzeko . TXINTXARRI



Extremadura Etxean elkartu ziren batukadako egungo kideak eta kide ohiak elkarrekin bazkaltzeko. TXINTXARRI



Itzi Kanek irakatsitako pausoak egiten ahalegindu ziren tailerreko partaideek. TXINTXARRI



Euripean aritu baziren ere, herritar talde batek beraiekin egin zuen bidea. TXINTXARRI





Lagun asko joan zen Oriartera Xilikonai eta The Noise Makers taldeak entzura. TXINTXARRI





Ibilbide luzea egin zuten partaideetako batzuk helmugara iristen (ezkerrean); Hegoak Mendian taldeko kideak (eskuinean). TXINTXARRI

Euriak ez du IV. Mendi Festa zapuzterik izan

Giro ederrean ibilbide luzea eta motza amaitu dituzte IV. Mendi Festako partaideek. Ekitaldiaren irakurketa ona egin dute antolatzaileek. Bitxikeria batzuk ere izan dira aurtengo ibilaldian; Iparraldeko Hegoak Mendian taldeak parte hartu du

Txintxarri

Eguraldi iragarpenari kontra egin eta eguzkia nagusi izan zen hilaren 25ean; udazkena bertan dela zioen tenperatura freskoak, ordea, ez. Zeruari gutxi begiratuko zioten ibilbide motza edo luzea aukeratu zuten 277 mendizaleek, zer ikusi interesgarriagoak izango baiziren tontorrera bidean eta gainean bertan.

Lasarte-Oria Traileko kideak gelditu gabe lanean aritu ziren egunsentitik IV. Mendi Festa antolatzen. Goizeko bederatzietan abiatzekoa zen ibilaldi laburra eta partaideak Okendon elkartzen joan ziren. Zerrendak begiratu, beraien txartelak jaso eta Andatzara abiatzeko irteera orduaren zain egon ziren. Bi ordu lehenago 85 bat mendizalek egin bezala, hauek, aldiz, Buruntza zuten lehen tontorra.

Uneren batean euria egin bazuen ere, oro har, partaideak ez ziren apenas busti; eta uste zutenaren kontra lokatz gutxi topatu zuten Andatzan.

Abiapuntura itzultzean, txokolate beroa eta txurroak, barkiluak edo gailetak eskaini zizkieten antolatzaileek. Baita opariz betetako poltsa ere. Batzuek, gainera, zortea izan zuten eta zozketan sari bat egokitu zitzaien.

Ibilbide motzeko joan-etorria egiten lehena Iñigo Otaegi izan zen, 01.16.00; emakumezko azkarrenak, berriz, elkarrekin bidea egin zuten Leire Belartieta eta Haizea del Olmo izan ziren.

Ibilbide luzean, Buruntza, Adarra, Zorrotzarri, Onddi eta Santa Barbaran barrena ibili ondoren gainerakoen aurretik heldu ziren Aitor Aranburu Pino eta Borja Granado Macazaga. Hiru ordu eta erdi luze behar izan zuten helmugara iristeko (03.39.52).

Bitxikeriak

Ibilbide motzeko tontorra aldatu izanak nahasmen bitxiren bat eragin zuen. Villabonatik etorritako bi lagunek ia ordubete berandu ekin zioten probari, baina okerreko mendia igo zuten. Buruntzan inolako seinalerik ez topatu izanak eta beste partaiderik ez ikusi izanak harritu bazituen ere, aurrera jarraitu zuten. Plazan pozik zeuden, hala ere.

Iparraldetik etorritako Hegoak Mendian taldeko zazpi kidek zortzigarrena gurpil aulkian eraman zuten Andatzan gora eta behera. Helmugako arkua bertan zeudenen txaloen artean zeharkatu zuten.

LOTMEk, balorazio ezin hobea

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kideak pozarren daude aurtengo Mendi Festarekin. "Partaide asko izan ditugu eta denek amaitu dute proba. Iruñea, Bilbo eta beste toki askotako jendea etorri da", adierazi du Joseba Iparragire LOTMEko kideak.

Iparraldeko Hegoak Mendian elkartearen parte hartzea ezustekoa izan dela nabarmendu du: "Oso berezia eta hunkigarria izan da egiten duten lana ikustea. Hurrengo urtean ere parte hartzeko asmoa agertu dute. Beraz, ibilbidea moldatu beharko dugu".

Era berean, Mendi Festa lehiaketa bat ez dela azpimarratu du: "Aurten ibilbide luzea gogorra izan da. Partaide batzuk lasterka egitera etorri dira; ez mendian ibiltzera. Beraz, ibilbideari gainbegiratu bat eman behar diogu". Lasterketa prestatzeko eskaerak jaso dituztela jakitera eman du: "Antolaketa aldetik ez litzateke zail izango, baina boluntario gehiago beharko genituzke".

Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkie Mendi Festan izan diren boluntarioei, baita DYAri eta probaren babesle guztiei ere, udala barne.

Hurrengo urteko Mendi Festaren prestaketak otsailean hasiko dituztela aurreratu du. Bien bitartean, urriaren 16an, Aniera (Auñamendi) irteera antolatu dutela jakinarazi du. Izen ematea elkartearen webgunean egin daiteke.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Ostadar SKT - Bergara KE
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

GORENGOEN MAILA

Axular KKE - Ostadar SKT
Igandea. 17:30. Martutene, Donostian.

ERREGIONAL 1. MAILA

Ostadar SKT - Idiazabal KE
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
Intxurre KKE - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 15:30. Elorri, Alegian.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Hernani CD
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

JUBENIL 1. MAILA

Ostadar SKT B - Urnieta KE B
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
Ordizia KE B - Ostadar SKT C
Larunbata. 18:00. Altamira-anexo, Ordizian.
Texas Lasartearra CF - Lagun Onak CD B
Igandea. 11:40. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Vasconia CD B - Ostadar SKT
Larunbata. 10:30. Martutene, Donostian.

KADETE 1. MAILA

Ostadar SKT C - Kostkas KE D
Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
Euskalduna SD B -Texas Lasartearra CF
Larunbata. 10:00. Ubitarte, Andoainen.
Martutene KE D - Ostadar SKT B
Igandea. 12:00. Martutene, Donostian.

OHOREZKO INFANTIL MAILA

Ostadar SKT - Urnieta KE
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

INFANTIL TXIKI, AURRETIKO FASEA

Orioko FT - Ostadar SKT
Igandea. 15:30. Mendibeltz, Orion.

ARETO-FUTBOLA

1. MAILA

Euskalduna SD - Eguzki Arkupe Reh.
Igandea. 11:30. Allurralde kirol., Andoainen.

2. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Ttakun AFE
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - Erroibide Urbycolan
Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA

GSR Ointxe! - Ostadar SKT
Larunbata. 10:00. Ibarra kirol., Aretxabaletan.

INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Ordizia 09 - Ostadar SKT
Larunbata. 10:45. Majori kirol., Ordizian.

INFANTIL ERRENDIMENDU ZILARRA

Zast Lynx - Ostadar SKT Urdina
Larunbata. 12:00. Arizbatalde kirol., Zarautzen.

PILOTA

ESKUZ BINAKA, JUBENIL 1. MAILA

Intza - Gazteleku 2
Larunbata. 16:15. Michelin kirol guneko pil.

ESKUZ BINAKA, JUBENIL 2. MAILA

Tolosa - Intza
Larunbata. 10:00. Beotibar pil., Tolosan.

ERRUGBIA

12 ETA 10 URTEZ AZPIKOAK

Beltzak RTko 12 eta 10 urtez azpiko gazteek Topaketa izango dute.
Igandea. Goiza. Hondarribiako hondartzan.

AUTOMOBILISMOA

RACVN RALLYA

Herriko gidariak RACVN Rallyan lehiatuko dira.
Igandea. 08:30. Los Arcos, Nafarroan.

Korrikalariak probaz proba iraileko azken asteburuan

Lau lasterketetan lehiatu dira herritarrak eta herriko taldeetako ordezkariak; lehen hogeiren artean izan dira

Txintxarri.

Lasarte-Oriako korrikalariek ez dute atsedenik hartzen. Hilaren 25ean, igandearekin, hiru lasterketetan izan ziren herritarrak.

Josetxo Imaz XII. Oroimenezkoan izan zen ordezkaritza zabalena. 10 kilometrotako proban, David Cordero izan zen herritarren artean azkarrena (35.22) eta 35 urteko master mailako zazpigarren sailkatu zen. Gainerako lasarteoriatarren denborak honakoan izan ziren: Moises Vela (36.32), Mikel Ubegun (41.13), Javier Somovilla (53.20), Carlos Herrero (56.11) eta Antonio Ferrera (56.11).

Añezcarren, Nafarroan izan zen Axeri taldeko Iurgi Los Arcos herritarra. 10 kilometroko lasterketan, 11. postuan sailkatu zen herritarra.



David Cordero, helmugara iristen.
MAIDER INTXAUSTI / GOIERRIKO HITZA

Oiartzunen, Ugaldetxo krosa jokatu zuen Trinkoko Asier Gorostegik. Zazpi kilometrotako ibilbidea 30 minutu eta 44 segundotan egin zuen.

Egun bat lehenago, Taleidominak kaltetutakoen aldeko lasterketa lehiatu zen Legorretan. 7,1 kilometroko mendi proban LOTMEko Mertxe Casasek 26.17 egin zuen.

Ostadarrek irabazi du Erregional mailako derbia

Ostadar SKTk eta Texas Lasartearrak Erregional I. Mailako derbia jokatu dute denboraldiko lehen jardunaldian. Partida borrokatua izan da eta gol aukerak ongi baliatu dituen taldea gailendu da; 1-2 amaitu da norgehiagoka

Txintxarri

Erregional 1. Mailako derbiak Michelin kirol guneko harmailak bete zituen hilaren 24an eta giro ederra izan zen.

Denboraldi hasiera berezia izan zen bi taldeentzat. Abuztuan zendutako Ostadar SKTko jokalari ohi Xabier Otaegi izan zuten gogoan urdin-beltzek. Hori dela eta, neurketa hasi baino lehen minutuko isilunea egin zuten bi aurkariek. Texas Lasartearrari dagokionez, bost urtez kategoria horretan lehiatu gabe egon ostean, Erregional mailara itzuli da aurten.

Hori guztia dela eta, euren zaletuen aurrean gogoz ekin zioten bi taldeek norgehiagokari, eta lehen zatia borrokatua izan zen. Husnako berdinketarekin amaitu zen.

Bigarren zatian, Ostadarrek ongi baliatu zituen gola egiteko aukerak eta 48. minutuan aurrea hartu zuen markagailuan, areaz kanpoko jaurtiketa baten bitartez. Nahiz eta Texas Lasartearra golaren bila joan, kontraeraso batean baloi luze bati esker Ostadarreko aurrelaria atezainaren aurrean geratu eta talde urdin-beltzak bigarren gola egin zuen.

Zuri-urdinek ez zuten amore eman eta jokaldi batean bost korner jaurtitzera iritsi ziren. Partida amaitzear zegoela, etorri zen saria Yonatan Monroyren taldearentzat; ezkerretik egindako jaurtiketa batean 1 eta 2koa egin zuen.



Ostadarreko jokalaria, baloiarekin ihesi joan nahian. TXINTXARRI

Ostadarrek, orduan, neurketaren erritmoa mantsotu zuen eta Texas Lasartearrako erregionalak ezin izan zuen berdinketa eskuratu.

Gol aukerak

Ostadarreko Mikel Zarraga prestatzailea pozik dago emaitzarekin, baina markagailua bestelakoa izan zitekeela ere nabarmendu du: "Partida nahasia izan zen. Aukerengatik berdinketa izango zen justuena, baina areatan zorrotzago ibili ginen eta horrek eman zigun garaipena".

Bat dator Texas Lasartearrako arduradun Monroy ere: "Ongi aurre egin geniela uste dut. Ez genuen partida ona egin, baina ez genuen galtzea merezi nire ustez. Ateari begira aukerak ongien baliatu zituen taldeak irabazi zuen. Ostadarrek hiru bat jaurtiketa egin zituen eta bi gol egin zituen. Erraz sartzekoak ziren aukeretan huts egin genuen".

Bi taldeetako arduradunek lehen jardunaldi horretan jasotako berotasuna eta egondako "giro aparta eta polita" nabarmendu dute. Horregatik, Michelin kirol gunean izan ziren zaletuei eskerrak eman dizkiete.

Eguzki areto futboleko ligari aurre egiteko prest dago

1. Mailako taldeak Kopako kanporaketak jokatu ditu eta txapelketan aurrera egin du. Gabonetan jarraituko du lehiak

Txintxarri

Gipuzkoako areto futbol denboraldia hastear da. Urriaren 2ko asteburuan jokatuko dira lehen neurketak eta Lasarte-Oriako Eguzki saileko kideak kantxara aterako dira berriro euren onena emateko. 1. mailako taldea ordea, lehian hasi da honezkero: Kopako bi kanporaketa jokatu eta biak gainditu ditu.

Hilaren 17an, Ostiko KTren aurkako partidarekin hasi zuten lehiaketa Josu Lopezen mutilek, Maialen Chourraut kiroldegian. Taldeari erritmoa hartzea kosta zitzaion, baina ongi eman zion itzulia egoerari eta 5-4 irabazi zuen.

Bigarren norgehiagokan Eskoriatza KE izan zuen aurkari. Partidako lehen zatian ederki jokatu zuen Lasarte-Oriako taldeak eta nagusi izan zen. Alabaina, huts batzuek aurkariari adorea eman eta azken minutuetan ederki borrokatu behar izan zuten Eguzkiko jokalariek, 3-4koa markagailuan mantentzeko.

Liga hasiera

Orain Kopak atseden hartuko du; Gabonetan jarraituko du lehiak. Eguzkik, orain, ligari ekingo dio.

Euskalduna izango da lehen aurkaria. Andoainen jokatuko dute neurketa eta lehia borrokatua espero du Eguzkiko prestatzaileak. Hala ere, garaipena eskuratzeko prest daudela aurreratu du: "Taldeak gogoz eta konfiantzaz aurre egingo dio lehen partidari eta irabazteko aukerak ditugu".

Kopako garaipenak, gainera, taldeari ongi datozkiola uste du Lopez entrenatzaileak: "Liga hasierari begira, adorea emango die jokalariei".

Igoera buruan

Liga prestatzeko abuztuaren amaieran hasi zen lanean 1. Mailako taldea. Jokalari batzuen bajari aurre egin behar izan dio Lopezek eta iaz debuta egin zuten hiru jubenil igo ditu lehen taldera. Kanpotik datozen jokalari batzuk ere fitxatu ditu.

Denboraldiaurrean partida gutxi jokatu dituzte. Maila bereko Oiartzun eta Eguzkiren bigarren taldearen aurka lehiatu dira. Lehena 4-1 galdu zuten eta bigarrena, berriz, 1-4 irabazi zuten. "Kopako neurketak genituen eta horiekin prestaketa fintzea espero genuen", azaldu du Eguzkiko prestatzaileak.

Herriko lehen taldeak igoera jokatu zuen 2021-2022 denboraldian eta balentria hori buruan duen arren, lehenik sailkapeneko buruko postuetan egoteko egingo du lan Lopezek: "Lehen postuetan sailkatzea da helburua. Horretarako jardunaldiz jardunaldi joango gara eta ikusiko da nora iristen garen".

Prestatzaileak onartu digunez, "ligan joko maila mantendu den arren, talde gogorrak eta esperientziadunak igo dira eta denboraldia ez da erraza izango".



Kadete Errendimendu Zilar taldeak, bitik bi

Ostadar Saskibaloia saileko Kadete Errendimendu Zilar taldeak liga hasiera ona izan du; lehen bi jardunaldietan garaipena erdietsi du. BKL Pagoetaren aurkako neurketa luzapenean erabaki da; 70-58 gailendu dira jokalari urdin-beltzak

Txintxarri

Luzapenean irabazi zuen Ostadarreko Kadete Errendimendu Zilar Mailako taldeak BKL Pagoetaren aurkako norgehiagoka.

Ostadarrek aurre hartu zuen eta ederki mantendu zuen aldea (10-13, 25-21 eta 40-32). Alabaina, azken laurdeneko lehen minutuetan irabazia zirudien neurketak itzulia eman zuen. Aurkaria jokoan sartu eta berdinketa lortu zuen, 55-55.

Azken bost minutuetan Ostadarren jokalarien altuera eta indar fisikoa gailendu zen eta BKLk ezin izan zuen ezer egin, 70-58.

Jonatan Reino talde urdin-beltzeko entrenatzaileak azaldu duenez, taldeak ongi jokatu zuen erasoan, baina defentsan ez zen fin ibili. "Lana dago egiteko. Taldeak gaitasun handiak ditu baina oraindik heldugabe dago", adierazi du prestatzaileak.

Entrenatzailea pozik dago jokalariekin eta egiten duten lanarekin: "Taldearekin aritzea gozamena da. Oso gogotsu daude. Gustura egin daiteke lan horrelako jokalari multzo batekin. Gogo eta jarrera primerakoa dute guztiek eta hori ezin hobea da".



Kadete Errendimendu Zilarreko taldearen partidako irudia. TXINTXARRI

Egoerara moldatzen

Horri esker, lehen bi norgehiagoketan garaipena lortu dute; lehen jardunaldian Goizper Group BKE 35-60 garaitu zuten. "Talde nahiko ahulak egokitu zaizkigu lehen neurketa horietan. Hurrengoak sendoagoak dira eta maila mantentzen dugun ikusi beharko da", azaldu du Ostadarreko prestatzaileak.

Horrez gain, maila berrian lehiatuko da kadete taldea aurten eta egoerara moldatzen ari dela nabarmendu du Reinok: "Federazioak bitan banatu du errendimendu maila (urrea eta zilarra) eta gurea berria izanik, galduta ginen hasieran. Ez genuen argi zein mailako taldeek emango zuten izena".

Zilarrezko ligan talde ezagunak eta ezezagunak topatuko dituztela jakitera eman du. Beraz, lehiaketako maila zein den ere ezin dute zehaztu: "Jardunaldiak jokatu ahala ikusiko dugu aurkarien eta gure maila zein den".

Hori guztia dela eta, aurten kirol arloan helburu zehatzik ez dutela azpimarratu du Reinok: "Ahal den posturik onenean egotea da xedea. Partida partida goaz eta lehen itzuliaren amaieran joko maila zein den ikusi eta helburua zehaztu ahalko dugu".

Era berean, Errendimendu maila formakuntzarako urtea dela gogoratu du: "Jokalariek ikastea, euren trebakuntza hobetzea eta saskibaloiaz gozatzea nahi dugu".

Intzako pilotariek zorterik ez dute izan bigarren jardunaldian

Jubenil 1. Mailako eta 2. Mailako Gipuzkoako Ezker Hormako Txapelketa lehiatzen ari dira herriko pilotariak

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko kideek Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketari eman zioten hasiera hilaren 17an, bere 75. urteurrena ospatzearekin batera.

Aurten jubenil mailako bi bikote soilik aurkeztu ditu herriko taldeak; 1. mailan, Haritza Diaz de Gereñu eta Peru Urdanpilleta arituko dira eta 2. mailako bikotea Beñat Olazabalek eta Pedro Eloseguik osatzen dute.

Gainera, bi bikoteek maila berriari egingo diote aurre; Intzako arduradun Jose Felix Solanok pilotariak kategoriara ongi moldatzea espero du.

Emaitzak, ez lagun

Txapelketako lehen jardunaldiak jokatu dituzte dagoeneko. Nahiz eta Intzako bikoteak ongi jardun zorte ezberdina izan dute euren norgehiagoketan.

Denboraldiko lehen pilotakadak etxetik kanpo egin zituzten herriko kirol elkarteko kideek. Oiartzunen, Oiarpe izan zuten aurrez aurre 1. mailako jubenilek, eta 22-6 galdu zuten. Errenterian bestelako emaitza izan zen: Intzako 2. mailako pilotariek euren onena eman eta 14-22 nagusitu ziren. Hilaren 24ko jardunaldian, berriz, Lasarte-Oriako bikoteek ez zuten zorterik izan Michelingo kirol guneko pilotalekuan; neurketak galdu zituzten.



2. mailako jubenilak, jokoan. TXINTXARRI

2. mailako jubenilen partida izan zen arratsaldeko lehena. Ederki borrokatu zuten Intzako zein Oiarpeko gazteek. Tamalez, Olazabalek eta Eloseguik aurkariek baino huts gehiago egin zituzten eta oiartzuarrek eraman zuten saria, 13-22.

Jarraian, 1. mailako lehiaren txanda izan zen. Horretan, Zazpi Iturri izan zen nagusi. Diaz de Gereñuk eta Peru Urdanpilletak ezin izan zuten ezer egin Amezketako bikotearen erasoen aurka. 4-22 amaitu zen lehia.

Artetxe, Behar Zanan

Bestalde, Gipuzkoako txapelketan izango da beste herritarrik. Jon Pello Artetxe seniorrak Behar Zana taldearekin bat egin du. 3. senior mailan arituko da lasarteoriatarra, Otañorekin batera. Jardunaldi bakarra lehiatu eta garaipena erdietsi dute, 9-22.

2022 urteko kirolari onenak hautatzeko prozesua irekiko da

Abenduaren 16an, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxean herriaren esker ona jasoko dute sarituek

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak herriko kirolarien jardun pertsonala edo ibilbidea saritzeko prozesua martxan jarriko du. Urriaren 10etik 30era herritarrek zein kirol elkarteek proposamenak egiteko aukera izango dute. Baldintza batzuk kontuan izan beharko dira: kirolariak lasarteoriatarrak eta adinez nagusi izatea.

Hurrengo egunetan etxeetan banatuko diren txarteletan zein udal webgunean eskuragarri izango den PDF moldagarrian kirolarien izena zehaztu, eta udal eraikuntzetan dauden postontzietan edo helbide elektroniko bidez (*partehartzea@lasarteoria.eus*) bidali ahalko dira hautagaitzak.



2021 urteko sarituak: N. Furundarena, A. Saleta, C. Rodriguez eta F. Puertas. TXINTXARRI

Izendapenak jaso eta aztertu ostean, kirol elkarteek zein kirol batzordekideek euren bozkak emango dituzte eta 2022 urteko kirolari sarituak zeintzuk diren jakingo da.

Abenduaren 16an, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxean egingo da Kirol Gala. Bertan herritar, senide eta kirol elkarteen berotasuna jasoko dute hautatuek.

Era berean, aukeraketa martxan dagoen bitartean, Kale Nagusian aurreko urteetako sarituen banderak ikusgai izango dira.

Lasarte-Oriako udalak herritarrei eta kirol elkarteei prozesuan parte hartzeko gonbita egin die.

ZORION AGURRAK



Enzo
Zorionak Enzo!!! Ondo ospatu 6 urtetxoak. Aiton amonen partetik.



Unax
Zorionak Unax!!! Segi bizitzari kañete egiten!

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINTZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

8			1		2			6
					9	7		4
	6				5			
4		5				9	1	
			5	9			4	
	3		4	7				
5	4				7			9
					8	4	2	
	9				4			

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak,

Internet

- *txintxarri.eus/zorionagurrak.*
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali *txintxarri@ttakun.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu zorion agurrak.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 30
Min. 12º Max. 17º

Larunbata, 1
Min. 13º Max. 22º

Igandea, 2
Min. 11º Max. 21º

Astelehena, 3
Min. 13º Max. 21º

Asteartea, 4
Min. 13º Max. 22º

Asteazkena, 5
Min. 13º Max. 21º

Osteguna, 6
Min. 14º Max. 19º

OHARRA

Udako Txokoetan zein kanpaldietan galdutako gauzak jasotzeko epea

Ttakun Kultur Elkarteak jakinarazi du Udako Txokoen zein kanpaldien ostean jasotako haur eta gaztetxoen arropa eta hainbat objektu bulegoan daudela eskuragarri.

Ordutegia honakoa da: astelehena, 16:00etatik 18:00etara; asteartetik ostegunera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara eta ostiraletan, 09:00etatik 13:00etara.

Urriaren 7ra arte izango da gauzak berreskuratzeko aukera, ostiralarekin.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 30	GIL
LARUNBATA, 1	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 2	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 3	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 4	URBISTONDO
AZTEAZKENA, 5	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 6	DE ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dut irail eta urrian, hamabost egunez edo hilabete osoz. Harremanetarako zenbakia, 677 35 18 35 (Lourdes)

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratudun apartamentua alokagai. 60 metro karratudun loretegia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Irailera arte alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

LANA

ESKAINTZA

Unibertsitateko ikasketak egiten ari den edota amaitu dituen pertsona behar dugu, DBHko 3. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Astean hiru egunetan beharko genituzke eskolak eta azterketa garaian eskola extrak. Interesatuek honako telefono zenbakira dei dezakete: 630 73 29 49.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

8 urteko neska bat ikastolara eramateko pertsona bat behar da. Ikasturte osoa. Harremanetarako zenbakia: 607 35 87 15 (WhatsApp)

ESKARIA

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomokarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremaneratako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96..

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik


TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

ESKELA



MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Merbxan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 30

LASARTE-ORIA Erakusketa
Loli Lameiras lasarteoriatarraren erakusketa ikus daiteke Mercero gunean. Paisaia eta loreak marrazten ditu olio klasikoa erabiliz, baina bestelako margo eta teknikak ere erabiltzen ditu bere lanak sortzeko.
Mercero gunea, goizez, astelehenetik igandera, 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez, astelehenetik larunbatera, 17:30etik, 20:00etara.

LASARTE-ORIA Auzoko jaiak
Hiru urteko eten behartuaren ostean, indar betean itzuliko dira festak Sasoetara.
18:00etan, txupinazoa eta pregoia, Andatza plazan.
18:00etan, kirol jarduerak LH3-DBH3 maila arteko gazteentzat, Uzturre plazan.
19:00etan, pintxo potea, taberna hauetan: Txoko, Mostatxo, Jaizkibel, Peña, Txindoki, Santxo eta 2KN.
19:00etan, minidiskoa Andatza plazan.
20:00etan, txokolate jana Aitonak okindegiaren eskutik, Andatza plazan.
20:30ean, zuzeneko musika emanaldia, Andatza plazan.
23:30ean, zezensuzkoa, Andatza plazan.
00:00etan, DJ Nemux, Andatza plazan.
Sasoeta auzoan zehar, arratsaldez eta gauez.

LARUNBATA 1

LASARTE-ORIA Auzoko jaiak
Festetako bigarren egunean egingo dituzte jarduera gehienak.
11:30ean, tailerrak eta aurpegia margotzeko saioak, Dulce Tentacion dendan, Jaizkibel plazan.
11:30ean, futbolin txapelketa Jaizkibel plazan: gurasoak seme-alaben aurka.
13:00etan, LOZET elkartearen buruhandiak ibiliko dira auzoan barrena.
14:30ean, bazkari herrikoia, Jaizkibel plazan. Tiketak Bagri liburudendan eros daitezke, 10 eurotan.


KATXIPORRETA

LASARTE-ORIA Emanaldia. Pirrix, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Kuikui* familia antzerkia taularatuko dute. Euskararen gaiari eutsi nahi izan diote azken ikuskizunarekin, Aitorren eta Mariren hizkuntza zaharrari arnasbideak topatzeko asmoz. Pailazoek haiekin batera hegan egitera gonbidatuko dituzte ikus-entzule gazteak. Sarrerek 4 euro balio dute.
Manuel Lekuona kultur etxea, urriaren 1ean, 17:00etan.

16:00etan, mus txapelketa, Mostatxo tabernan.
16:00etan, igela txapelketa, Txindoki tabernan.
16:00etan, xake txapelketa, Andatza plazan.
16:30ean, zunba saioa Andatza plazan, Saito gimnasioaren eskutik.
18:00etan, pintxo potea, Sasoeta Sasoian elkartearen egoitzan (Andatza plaza).
18:30ean, danborrada eta txaranga. Andatza plazatik aterako dira.
23:30ean, zezensuzkoa, Andatza plazan.
00:00etan, DJ Nemux Remember, Andatza plazan.
Sasoeta auzoan zehar, egun osoz.

LASARTE-ORIA Rallya
*San Sebastián Circuit Spirit Rallya*ren bosgarren edizioak hartuko du herria. Egitasmo horren helburua da 1923 eta 1935 urteen artean Donostiako automobil zirkuituan izandako lasterketak gogora ekartzea. Donostiako Gipuzkoa plazatik abiatuta, Lasarte-Oriako Zirkuitu Zaharreko erdigunera iritsiko da. Michelin fabrikatik, Geltoki kalea hartu, eta Hipodromo etorbidea zein Kale Nagusia igarota Zirkuituko Ibilbidera iritsiko dira parte hartzaileak.
Michelin lantegia, 10:45ean.

LASARTE-ORIA Adinekoen Omenaldi Astea
Adinekoen Omenaldi Asteari hasiera emateko, bandera igoera iragarri dute.
Biyak Bat egoiza, 16:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua
Odolaren Mintzoa talde usurbildarrak kontzertua emango du. Sarreragatik ez dute ezer ordaindu beharko ikus-entzuleek.
Jalgi kafe antzokia, 20:00etan.

IGANDEA 2

LASARTE-ORIA Auzoko jaiak
Sasoeta auzoko festetako azken eguna izango da. Goizez eta arratsaldez aurrera eramango dituzte programako jarduerak:
11:30ean, haur eta gaztetxoentzako puzgarriak, Andatza plazan.
11:00etan, Laser Tag jokoa, Andatza plazan.
12:30ean, patata tortilla txapelketa Andatza plazan. Jakiak 11:00etatik 12:30era entregatu behar dira.
13:00etan, LOZET elkartearen buruhandiak ibiliko dira auzoan barrena.
16:00etan, haurren danborrada, Andatza plazan.
17:00etan, errifen zozketak, Andatza plazan.
17:30ean, amaierako traka, Andatza plazan.
Sasoeta auzoan zehar, goizez eta arratsaldez.

LASARTE-ORIA Zinema
Ikasturte berriarekin batera hasiko dira haurrentzako zinema saioak. Oraingoan, *Minions: el origen de Gru* filma proiektatuko dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan eros daitezke, 4 euroren truke.
Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Ikasturte berriarekin batera hasiko dira helduentzako zinema saioak. Oraingoan, *El acusado* filma proiektatuko dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan eros daitezke, 4 euroren truke.
Manuel Lekuona, 19:30ean.

ASTEAZKENA 5

LASARTE-ORIA Adinekoen Omenaldi Astea
Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko, Biyak Bat koruak emanaldia eskainiko du.
Manuel Lekuona, 13:15ean.

OSTEGUNA 6

LASARTE-ORIA Adinekoen omenaldi Astea
Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko, Jose Alberto Aznar tenorraren emanaldia iragarri dute.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA Adinekoen Omenaldi Astea
Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko, Duo Imperial taldearen kontzertua iragarri dute.
Manuel Lekuona, 19:00etan.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Adinekoen Omenaldi Astea
Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Meza egingo dute Brigitarren komentuan 11:00etan. Ondoren, oparien banaketa egingo dute, eta bazkaria ostean.
Brigitarren komentua, 11:00etan.

IGANDEA 9

LASARTE-ORIA Adinekoen Omenaldi Astea
Adinekoen Omenaldi Astea ospatzeko hainbat jarduera deitu dituzte:
11:30ean, meza, Zumaburu parrokian.
12:25ean, trikitilariak, elizatik kultur etxera.
13:15etik 13:45era, Biyak Bat koruaren emanaldia, kultur etxean.
14:00etatik 18:30era, bazkaria eta dantzaldia Ibai Berriak musika taldearekin, Michelin kirol gunean.
Herriko leku ezberdinetan, 11:30etik aurrera.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Minions: el origen de Gru'
Igandea 2: 17:00.

'Minions: el origen de Gru'
Igandea 2: 17:00.

USURBIL

URBIL

'Avatar'
Ostirala 30: 17:45, 21:20.
Larunbata 1: 17:45, 20:35, 21:20.
Igandea 2: 17:45, 20:35, 21:20.

'Dragon Ball'
Ostirala 30: 16:05.
Larunbata 1: 16:05.
Igandea 2: 16:05.

'La chica salvaje'
Ostirala 30: 16:00, 18:55, 21:50.
Larunbata 1: 16:00, 18:55, 21:50.
Igandea 2: 16:00, 18:55, 21:50.

La invitación'
Ostirala 30: 16:35.
Larunbata 1: 16:35.
Igandea 2: 16:35.

'La vida padre'
Ostirala 30: 18:45, 21:10.
Larunbata 1: 18:45, 21:10.
Igandea 2: 18:45, 21:10.

'Los buscamundos'
Ostirala 30: 17:05.
Larunbata 1: 16:30.
Igandea 2: 16:30.

'Modelo 77'
Ostirala 30: 19:10, 22:05.
Larunbata 1: 19:10, 22:05.
Igandea 2: 19:10, 22:05.

'No te preocupes querida'
Ostirala 30: 19:20, 22:15.
Larunbata 1: 19:20, 22:15.
Igandea 2: 19:20, 22:15.

'Padre no hay más que uno 3'
Ostirala 30: 18:30.
Larunbata 1: 18:30.
Igandea 2: 18:30.

'Smile'
Ostirala 30: 16:40, 19:30, 22:20.
Larunbata 1: 16:40, 19:30, 22:20.
Igandea 2: 16:40, 19:30, 22:20.

'Tadeo Jones 3. La tabla esmeralda'
Ostirala 30: 15:55, 18:15.
Larunbata 1: 15:55, 18:15.
Igandea 2: 15:55, 18:15.

Laguntza beharko dugu!

Urriak 22 | 23

10K EUSKARAREN MARATOIALDIA

Laguntza txandak antolatu ditugu:

- Txosnan
- Otorduren bat zerbitzatzen
- Photocallean argazkiak egiten

lagundu!

- Bete formularioa
- Ttakuneko bulegora etorri
- Deitu 943-371448
- maratoialdia@gmail.com

Laterpea

ELECTRICIDAD EZA ARREGUI

www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Argiztatu ikasturte berria!

Aukera zabala ikasketa mahairako argietan



Bulego-lanparak
LED argi erregulatzaileekin

Haur, gazte eta helduentzat



Eskatu whatsapp bidez!
600 85 75 86

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

